

1990-XI-30

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1990eko azaroaren 30ean egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamar eta erdietan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Sarustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knör, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia, idazkariorde urgazlea.

Tx. Peillen jaunak ezin etorria adierazi du

Urriko batzar-agiria onartu da.

Izendapenak

Azkeneko batzarrean euskaltzainburuak aipatutako euskaltzain urgazle eta ohorezkoen izendapenen gaiarekin jarraituz, batzarreak ontzat eman du asmoa. Aurre-iritzi batzuren beharra ikusi da eta euskararen zenbait arlo desberdinetako adibideak azaldu dira.

Arautegiko dagozkien 37, 38 eta 39. artikulua irakurri ondoren, proposamen bakoitza bi euskaltzain osok izenpeturik eta hautagaiaren merezimenduak izkribuan aipatuz, datorren abenduko batzarrera ekarriko dira denak urtarileko Barne-jardunaldietan egingo direlarik izendapenak.

Letra larrien erabilera

Euskaraz maiuskulen erabilera arautzeko txostena amaitu gabe gelditu zen, astirik ezean, azken batzarrean, eta punduz-pundu ikusi dira orduan aurkeztutako erabakigai hondarrak. Onartutako erabakien testua orraztu eta euskaltzainei bidaliko zaie berehala, aste baten epea emanez idazkerari dagozkion azken oharrak egin ditzaten. Lehen-bait-lehen zabalduko da gero, argitaldari, ikastetxe eta euskararen edozein moduko arduradunek *Euskeran* argitaratzearen zain egon gabe jaso dezaten.

Batasunaren ildotik

Laster Arantzazuko bilkuraren 25. urtemuga dela eta, denbora honetan nabarmentzen joan diren euskararen bikoiztasun, kontraesan eta bideratu gabeko arazoen arautzeko parada litzatekeela, aditzera eman du izkribu baten bidez P. Salaburuk. Ortografiaren arauak, deklinabidearen nahiz aditzaren morfologia, hiztegia bai eta hitz mailegatuak aipatu ditu, besteak beste, aurkeztutako izkribuan. Lana bideratzen joango den batzorde suntsikor bat izendatzea proposatzen du azkenik. Bergarako Batzarrearen antzekoren bat ere egin beharko litzateke bere egunean.

Interesgarria dela proposamena eta lehen-bait-lehen egin beharrezkoa esan dute batzartuek. Urtarrileko Barne-jardunaldietan gaiak sailkatu eta epeak ezarzea, proposatu du euskaltzainburuak, eta horrela onartu da.

Gaurregun hegoaldean euskarari lotzen zaizkion gaztelaniaren erdarakadak salatu ditu P. Charrittonek, Iparraldean ulertezinak gerta ohi direla askotan, esanez.

Alokutiboak batu beharra azpimarratu da gero, eta horretan ikasiak direnekin egin behar litzateke batzordea. Iparraldekoek erabakigairen bat prestaturik ekarzea ere aipatu da, Barne-jardunaldietara esku-huts joan ez gaitezen. Gaiari behar den denbora eman eztabaidatu eta adierazpenen bat atera behar lukeela Euskaltzaindiak, esan da. Ponentzien arduradunak eta gaien zerrenda abenduko batzarrean zehaztuko dira.

Eskuartekoak

Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleek, Jagon Sailarekin batera, zenbait politikarik azken aldi honetan euskarari buruz plazaratutako aburu eta aldarrikapenei erantzunez egin duten adierazpena, banatu du E. Knörrek.

Nafarroan FMko baimenik gabe baztertuak izan diren euskal irrati bien arduradunek bidalitako gutun baten bidez, abenduaren 15erako iragarria den manifestaziora agertzea eskatzen diote Euskaltzaindiari erakunde bezala, edota euskaltzainei euren kabuz. Era berean, manifestazioaren berri emateko abenduaren 12an egingo den prentsaurrerako ere dei bera egiten dute.

Nafarroan euskarari egindako erasoak gogorrek dira, noski, baina Euskaltzaindiak agertu du ofizialki bere adierazpena eta ez da erakundearen ohitura manifestazioetan sartzea. Euskaltzain bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea badu, bere aldetik. Prentsaurrekoari dagokionez, Jagon Sailak erabaki beza egoki iduritzen zaiona.

Nafarroako Herri Unibertsitatean, bestalde, duela bost urte Zaragozako Unibertsitatearen babesean Magisteritzako ikasleek zuten euskarazko adarra kendua izan da, matrikulatzean besterik esan bazitzairen ere. Hori dela eta ikasleok euren haserrea agartzen dute gutun baten bidez.

Nafarroako Gobernuarekin mintzatu ondoren, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* laugarren liburukia Nafarroan aurkeztea erabaki du Zuzendaritzak azken bilku-

ran. Prentsaurreko batekin egingo da abenduaren 13an, eguerdiko hamabietan, Gobernuaren jauregian.

Aita Jorge Erriezuko euskaltzain ohorezkoa ikusten izan zela atzo, aditzera eman du J.M. Satrustegik. Iruñeko kaputxinoen eritetxean zaintzen dute eta gorputzeko gogoduraz ezin da bakarrik baliatu, buruz argi eta izpirituz gogatsu agertzen bada ere. Euskaltzainak agurtzeko eskatu zuen.

Andoainen abenduaren 14tik 23ra Larramendiren mendeurrenkari emango diren hitzaldi eta prestatutako beste ospakizun batzuren berri eman du J.L. Lizundiak. Euskaltzainen hileroko batzarrea 21ean egingo da, goizean, Udaletxeko Batzar-aretoan. Arratsaldean emango zaie, hasiera XII. Lexikologi Jardunaldi, biharamunean jarraitzeko.

Andoni Sagarnak EEBS proiektuaren aurkezpena egin du gero, beste gela batean, langaien kopurua eta hauen baliapenaren zenbait adibide emanaz.

Eta besterik gabe amaitu da goizeko batzarrea.

BATZAR ARRUNTA

Donostian, 1990.eko azaroaren 30ean, Gipuzkoako Foru Diputazioan, arratsaldeko 4etan, bildu dira, goizeko euskaltzainez gain, urgazle hauek: X. Aranburu, R. Badiola, J.M. Etxaburu, J. Etxaide, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, J.M. Larrarte, M.^a P. Lasarte, J.A. Loidi, L.M. Mujika, A. Sagarna eta J.J. Zearreta.

EEBS proiekturaren aurkezpena egiten da, Diputazio areto nagusian. Bertan aurkitzen dira, euskaltzain urgazleez bestalde: M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz politikarako idazkari nagusia; Josu Legarreta, Kultura Sailako Euskararen Arazoetako zuzendaria; Eneko Oregi, EAEE/IVApeko Euskal Sailaren zuzendaria; Mikel Ugalde, Euskararen Aholku Batzordeko bateragilea; Mirari Alberdi, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko teknikaria; Jose Antonio Aduriz, LEF azpibatzerdearen idazkaria; Felix Ibargutxi, Mikel Atxaga eta Jose Ramon Beloki, "Diario Vasco", "Deia" eta "Egunero" egunkariaren kazetariak; Dionisio Amundarain; Jesus Arzamendi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea; Elixabete perez, EUTGko irakaslea; Alberto Agirreazaldegia, UZEIkoa eta Antton Gurrutxaga, ELHUYAREkoa.

Andoni Sagarna azpibatzerdearen idazkariak EEBS proiektuaren oinarriko irizpideak eta dagoeneko lortuak diren emaitzak aurkeztu ditu. XX. mendeko euskal produkzioaren inbentarioa eta sailkapena, laginketa egiteko eredu estatistikoa, testuen hustuketa egiteko prestatu den programa informatikoa eta adibide gisa 50.000 testu-hitz inguruko corpus-zati baten zerrendatua erakutsi ditu. 1991ren bukaerarako 2.000.000 testu-hitzeko corpus osoa hustuta eta lematizatuta egongo dela eta garai horretatik aurrera metatutako informazioari probetxua ateratzen hasi ahal izango dela, hiztegi gintzan edo beste era bateko hizkuntza azterketatan. Amaieran, J. Haritschelhar euskaltzainburua agertzen da, EEBS azpibatzerdeak egin duen lana eskertuz.

Ohizko Gipuzkoako Batzar Nagusien gelan Federico Krutwig jaunak euskaltzainen txandako txostena irakurtzen du, izenburu honekin: “Zein da euskaldunen juddamendu aisthaitikoa”. Txostenean hainbat gai erabili ditu eta hauen artean baldintzetako “consecutio tempororum”, protasi, aoristo, baldintzazko berezitasun zenbaitzu: balitz-baledi. Ondoren grekozko *Kalós* euskarara nola itzuli? Honen inguruan hainbat irizpide eskaini dizkie batzartuei. Jarraian, elkarrizketa luze bat izan dute bilduek.

Jose Antonio Arana Martija jaunak: “L.L. Bonaparte printzearen bibliografia” izeneko txostena irakurtzen du. 1991. urtean dugu L.L. Bonaparte hil zenaren mendeurrena. Printzeak hirurogeitamar bat lan argitaratu zituen euskaraz 1856tik 1869. urterarte, L.L. Bonapartek beste hizkuntza batzuren dialektoak, italiara, ingelesa, aztertu zituela adierazi du txostengileak. Jarrain, L.L. Bonaparteren bibliografia lana burutzeko erabili dituen iturri nagusiak aipatu ditu. Bestalde, Azkue Bibliotekan dauden 69 liburuen berri eman du. Ondoren, solasaldi onurakor bat izan da.

Ricardo Badiola, Argitalpen eragileak, gaur bertan batzarre honetan kaleratu den Euskaltzaindiaren Argitalpenen Katalogoa banatuz amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Jose M. Satrustegi